# CHIPKO

MUSIKA:
Nerea Urbizu
HITZAK:
Nerea Urbizu
ABESLARIA:
Maider Ansa

1- BAZEN BEHIN INDIA IPARRALDEAN
BASO BERDE ETA EDER BAT
ZORAGARRI BEZAIN EMANKORRA
HERRITARRENTZAT NAHIZ KANPOKOENTZAT

2- HERRITARREI ARNASA ETA BIZIA
EMATEN ZIETEN BASOEK.
KANPOTARREI DIRUA_ETA_ERRETXINA
BERAZ ZUHAITZAK MOZTEN HASI ZIREN.
*(KLOK, KLOK, KLOK...)*

3-BERAZ EMAKUME TALDE BATEK
ZUHAITZAK BESARKATU ZITUEN
HONELA ELKARRI BABESA_EMANEZ,
HAU ESATEN ZUTEN BITARTEAN:

*CHIPKO-CHIPKO-CHIPKO-CHIPKO*

4-KANPOTARRAK HORI IKUSIRIK
BASO HARTATIK JOAN ZIREN.
HERRITARREK BASOA MANTENTZEA
BETIRAKO LORTU ZUTEN.

**ALTXORRA GUREA, ALTXOR BERDEA**
**INDARRA, BIZIA EMATEN DIGUNA.**
**EZ AL LITZAKE EDERRA**
**NORBERAK BAT LANDATZEA?**
**NATURA ESKERTZEKO**
**MODU EMANKORRA,**
**MODU EMANKORRA.**
**CHIPKO, CHIPKO, CHIPKO, CHIPKO...**

Oharra: Chipko hitzak gogor heldu esan nahi du, estu eutsi.